

BESTELAKO XEDAPENAK

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN SAILA

2230

EBAZPENA, 2025eko apirilaren 29koa, Garraio Azpiegituren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita «Usurbilen Illunbeko eta Torrekuako trenbide-pasaguneak kentzeko eraikuntza-proiektuak» ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda.

2025eko martxoaren 11ko Ebazpenaren bidez, «Usurbilen Illunbeko eta Torrekuako trenbide-pasaguneak kentzeko eraikuntza-proiektua» onetsi zen. Ebazpena 2025eko martxoaren 31n argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (62. zk.).

Ondoren, 2025eko apirilaren 3ko Ebazpenaren bidez, «Usurbilen Illunbeko eta Torrekuako trenbide-pasaguneak kentzeko eraikuntza-proiektua» berriz ere onetsi zen. Ebazpena 2025eko apirilaren 25ean argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (78. zk.).

Onarpen berriaren arrazoia aurrekontuan egindako zuzenketa bat da, jatorrizko proiektuan ez baitzen behar beste diru erabili jarduketan eragina izan zuen zuhaitz-masa hostotsu bateko zuhaitzak kendu eta mozteko. Horrek aurrekontua handitzea ekarri du «Lanak trenbide-plataformatik kanpo» partidan.

Illunbeko (96+609KP) eta Torrekuako (96+873KP) trenbide-pasaguneak, ETSren Bilbao-Donostia lineari dagozkionak, A (Aktiboa) motako trenbide-pasaguneak dira, eta trenbide-pasaguneko seinale bertikalen bidez bakarrik babesten dira. Inguruko nekazaritza-eremuetara sartzeko pasabideak dira.

Aginagako trenbide-pasagunea (96+971 KP) da inguru horretako nagusia, eta Aginaga auzorako sarbidea da 634 KPtik. C motako pasabidea da, hesi automatikoak, orduen araberako soinu-sistema eta errepiderako argi-seinaleak dituena.

Euskal Trenbide Sarearen Bilbao-Donostia linea ustiatzeko baldintzak eta segurtasuna hobetzeko, lehenengo bi pasaguneak (Torrekua eta Illunbe) kentzea eta Aginagako egungo pasagunean dauden hiru pasaguneak kontzentratzea planteatzen da.

Proiektu honen helburua da trenbide-pasagune horiek kentzeko behar diren jarduketak jasotzea.

Lursailak lortzeko eta ukitutako ondasun eta eskubideak kudeatzeko, proiektuak ondasun eta eskubide horien identifikazioa biltzen du. Horretarako, desjabetzeen eranskinean ageri dira lurzatieen zerrenda eta planoak.

Organo honek eskumena du garraio-azpiegituren arloko jarduerak gauzatzeko beharrezkoak diren desjabetze-espeditenteak izapidetzeko, Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 382/2024 Dekretuaren 11.2.c) artikulua xedatzen duenaren arabera.

Abenduaren 19ko 26/2022 Legeak aldatutako Trenbide Sektoreari buruzko irailaren 29ko 38/2015 Legearen 6.2 artikulua xedatutakoaren arabera, beste lursail batzuk erabili beharra dakarten trenbide-lineen proiektuak, horien tartekak edo tren-azpiegituraren beste elementu batzuk eraikitzeko proiektuak edo lehendik zeuden azpiegiturak aldatzeko proiektuak onartzen direnean, onespenez berekin ekarriko du onura publikoaren edo gizarte-interesaren deklarazioa, lursail horiek okupatu beharra izatea eta okupazio hori premiazko zat deklaratzeko, ukitutako eta identifikatutako ondasun eta eskubideen nahitaezko desjabetzearen ondorioetarako.

2025eko maiatzaren 23a, ostirala

Nolanahi ere, proiektua onartzeak inplizituki berekin dakarren arren proiektuak ukitutako ondasunak eta eskubideak okupatu beharra, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 17.2, 18. eta 19.2 artikuluek ondasun eta eskubide horien xehetasunak jasoko dituen zerrenda egin eta jendaurrean jarri behar dela ezartzen dute, nahi duenak alegazioak eta datuak aurkeztu ahal izan ditzan, okerrak zuzentzeko eta interesdunak zein diren ondo zehazteko.

Hortaz, aipatutako xedapenak, horiekin bat datozenak eta aplikatu beharreko gainerakoak ikusirik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Jendaurrean jartzea «Usurbilen Illunbeko eta Torrekuako trenbide-pasaguneak kentzeko eraikuntza-proiektuak» ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda, ebazpen hau azken aldiz argitaratu eta hurrengo hamabost (15) egun baliouduneko epean alegazioak aurkeztu ahal izan daitezen, okerrik baldin badago zuzentzeko, hala ezartzen baitute Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 19.2 artikulua eta horrekin bat datozenek. Alegazioak Mugikortasun Jasangarriaren Saileko Garraio Azpiegituren Zuzendaritzara zuzendu beharko dira, idatziz (Donostia-San Sebastián kalea 1, Lakua 1, 01010 – Vitoria-Gasteiz).

Aipatutako epean, ondasun eta eskubideen zerrenda Usurbilgo udaletxeko iragarki-oholean ere erakutsiko da jendaurrean.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 29a.

Garraio Azpiegituren zuzendaria,
MARÍA DOLORES DE JUAN DE MIGUEL.

2025eko maiatzaren 23a, ostirala

ERANSKINA

USURBILGO UDALERRIAN

Finka zk.	Katastroko erref.	Jabea	Eragin mota (m ²)			Izaera
			Erabateko desjabetzea	Zortasun iraunkorra	Aldi-baterako okupazioa	
002	03-217	Ana Isabel Aginaga Ibarгойen	0	157	157	Belardia eta fruta-arbolak
003	03-001	Marie Paul Bignalet Zatarain Xavier Paul Zatarain Bignalet Sonia Zatarain	0	621	621	Baratzea, belardia eta fruta-arbolak eta hostozabalak
004	7591031	Usurbilgo udala	0	8	333	Aparkaleku asfaltatua
005	04-268	María Jesús Olasagasti Irizar	0	126	126	Belarreztatutako eta sendotutako lursaila